

2.PIEZA

▣ **MERKATUAREN SEGMENTAZIOA**

Gure enpresaren segmentuari begira, datu garrantzitsu bati jarri diogu arreta. Gaur egungo gizarteak eskeintzen digun denbora libre nahiko eskasa zaigu, eta seguraski gure ludotekara etorriko diren haurren hainbat gurasori hori gertatzea. Beraz, haurrek probetsuzko eta kalitatezko denbora libre izan dezaten lanean gabiltza. Maiz, gurasoek horrelakoetan, beraien lehen aukera eskolaz kanpoko ekintzetara (extraeskolarrak) eramatea da. Askotan horrek frustrazioa eragiten die haurrei, beraien aukeraturako ekintzak ez direlako edo hainbeste ekintzekin ez dutelako jolaserako denborarik. Gure enpresak, beraz, bai gurasoen ikuspuntua zein haurrena ulertuta, ludotekak jolaserako denbora eskeini nahi die horren bitartez formakuntza jasoz.

Azaldutakoaz gain, gure ludotekan gurasoak presente izan nahi ditugu baita, ikusi dugulako batzuetan formazioaren beharra edo interesa dutela.

Batzuetan gurasoak ez dakite zer nolako jarrera izan gai batzuetan hurrekin, eta horretarako, laguntza eskeiniko diegu baita gure formazioean. Gainera interesgarria iruditu zaigun proposamen bat martxan jarriko dugu, gurasoen interesei begira. Gure ludotekaren sarreran, posta-kutxa bat eskeiniko diegu, formazio egunetarako jorratu nahi dituzten gaiak era anonimoan idatzi ditzaten.



Ordutegiari dagokionez, gure enpresa hainbat adin desberdinetako haurrei zuzenduta egongo litzateke. Ludotekak eskaintzen dituen adin tarteak, 6 urtetik 12 urtera arteko haurrentzat izango da, beraz, hiru saio ezberdin egingo ditugu hainbat adin nahasiz.

Egunei dagokienez, tailer hauek astean hiru egunetan egitea pentsatu dugu, astelehenetan, asteazkenetan eta ostiraletan. Uste dugu hori dela aukerarik onena haurrek ludotekara joateko aukera gehiago izan ditzaten, beste arrazoiren batengatik

eskaintzen dizkiegun egunetan joaterik ez badute. Ordutegiak adinaren arabera banatuko dira; beraz, hiru txanda egongo dira.

- Lehenengo saioa: Haur txikienekin hasiko gara, hau da 6-8 urtekoekin eta ordua 16:00 tatik 17:00tara izango da.
- Bigarren saioa: 8-10 urteko haurrak etorriko dira, 17:00 tatik 18:30 tara.
- Hirugarren saioa: Azkeneko saioa izango da eta adin tarteen artean, haur handienak etorriko dira. Ordutegia 18:30 tatik 20:00 tara.

LUDOTEKAREN ORDUTEGIA			
Saioak	Astelehena	Asteazkena	Ostirala
Lehenengo Saioa (6-8 urte)	16:00-17:00	16:00-17:00	16:00-17:00
Bigarren Saioa (8-10 urte)	17:00-18:30	17:00-18:30	17:00-18:30
Hirugarren Saioa (10-12 urte)	18:30-20:00	18:30-20:00	18:30-20:00